

LES-032 Hizlari ezezaguna
Lesaka, Nafarroa

Aurkibidea

Biografia

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Lesakan jasotako lekukotza anonimoak.

Zintak

LES-032

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 2000-01-01
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** Audio digitala

Pasarteak

1. Mezarako zapatak

- **Erref:** LES-032/001

- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Beno, joaten gintuan bi edo hiru elkarrekin ba... batzuetan, eta bertze batzuetan aldian bat joaten ginen, eta gero oinetakoak, bat pa... beti erosten zituzten bi numero handiagoak, niretzat, nik bada..., nire hanka baino bi numero handiagoak, bertze anaia bainuen zaharragoa, eta bertzea banuen txikiagoa, eta, niretzat beti erosten zituzten bi numeroz handiagoak eta nik egin behar nizkion anaia... elizatik... elizara joateko ni joanen nintzen zazpietako mezara, joanen ginen, eta, nire anaia etorriko zen bederatzietarako hura igual, eta nire zapata haiek hari eman behar nizkion hura berriz etortzeko elizara; gainera ez genituen etxean janzen, beheko karreteran jartzen genituen zapatak. Bai!

-(Semea): Eta hark bertze anaiari.

- Gero hark bertze anaiari, txandaka joaten ginen, ba.

-(Semea): Oinetako berekin, bai, espartinak; zapatak ez dakit, espartinak behinik behin.

- Bai, bai, bai. Espartinak, bai, zapatak! zapatak zer! Zapatak nik ez nituen hemezortzi urte arte ikusi ere! Oinutsik, ni beti oinutsik ibiltzen nintzen.

-(Semea): Frain kaskora... Frain kaskora iratze egitera nola joaten zineten?

- Bai, eta Frain kaskoa jaisten, goiko mendi hori da, e! Eta... bueno, joaten ginen harat, oinutsik joan, joan eta etorri larrez larre gainera, e!

-(Semea): Iratze egitera oinutsik, iratze pikatzera.

- Baina, gero ni etorri nintzenean honat, aizu, honat etorri nintzela hogeit urteetan, bizitzera, eta ez nuen jakiten oinetakoak non nituen, paratzen nituen hemen, errieta ematen zidaten, hori... hemen itsuski zela, e! oinutsik ez ibiltzeko, itsuski zela eta, paratzen nituen baina neronek ez dakidalarik utzi eta: "Oi, non ditut?! -denak bila- non utzi ditut nik zapatilak?!". Ezin nituen ibili, gero jarri nintzen, bai.

Bada, orain ere oinutsik aritzen naiz beti, uda guztian, bai. Eta... baina, izaten genituen kailuak, kristorenak izaten genituen, denak, e! Baziren lagunak, neska lagunak, bagenituen lau ahizpa baziren bertze baserrian, eta... beheko errotan bertzea... bertze bi baziren, denak horrela gutxi goiti-beheiti... adin igualtsukoak, denak oinutsik. Baina gero izaten... aritzen ginen igande arratsaldeetan, eta horrela neska kozkorak ginenean, e! Hori, bastorrazak hartu eta hanka-zolatik elkarri ateratzen sastorkak.

-(Semea): Arantzak.

- Elorriaren sastorkak eta denak, aizu! Baina izaten genuen honenbertzeko kailua aizu, eta, beti oinutsik ibilirik; baina eri egundaino ez ginen egoten, behin ere, eta ebakiren bat edo egiten baldin bagenuen ra! ebakiren bat edo horrela, etxean izaten zuten belar bat, ebaki belarra. Hori... egiten zen eta izaten zen gizen-gizena belar hura; eta, hura egiten zuten zanpa-zanpa-zanpa egin eta hura, azal bat, brintx hura, gaineke hura kendu eta horrela olioarekin ttip! pixka bat horrela untatu eta hura tak! heridetan paratu. Baina medikurik nik ez nuen ikusi hau jaio zen bitartean, ez, lehenbiziko mutikoa egin nuen bitartean ez nuen ikusi medikurik egundaino, eta fijatu zaitezte zer sa(no)... nola ibiltzen ginen, e!

2. Besta egunetako menua

- **Erref:** LES-032/002
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Eta gero sanferminetan eta horrela izaten genuen kristoren besta. Orduan hori egiten zuten, sanferminetan egiten zuten, egiten ziren oilaskoak baserrian, Sanferminetarako, eta aski onak, gandorra gorri-gorri-gorri eginda, ez oraingo horko horietatik ez! aski onak, horrela hartu hortzekin eta hezur guztia tiraka haragia ezin kenduz; oilasko onak egiten ziren hagitz, diferenteak, e! oraingoetatik. Eta oilaskoa egiten gisatuan eta gero bildotsa ere, guk ardirik ez genuen izaten, baina bildots bat hazten zen beti sanferminetarako, eta bueno, sanferminetan haiek hiltzen ziren eta kanpotarrak bada! etortzen ziren kristoren tokitik pariente guztiak jateagatik, orduan; jateagatik etortzen ziren! Eta bai senideak eta osabak eta... horiek denak eta. Gero, hura... bildots hura hiltzen zen eta hura besta guztietarako, eta orduan, nik ez dakit nondik, nonbaitetik ekartzen zuten holako trogo... trozo batzuk, Irundik edo; nik ahizpa zaharrena Irunen neskato hogeitaz egona baitut eta orain honek erranen ditu urteak, zenbat urte? Noventa y...

- (Semea): Laurogeita hamahiru, laurogeita hamahiru.

- Bai, kunplitu ditu Notxebuenan eta, eta hori... hori joana zen neskato Irunen toki... han ziren aberatsaren etxean aritu zen neskato hori; hogeitaz urte egon zen kozinera. Eta gero horrek, klaro, horrek bazekien guk baino aunitz gehiago eta han izaten ziren hormak, horma trozo batzuk horrela, horrek ekartzen zituen handik sanferminetarako. Eta haiek paratzen ziren horrela barreñoetan, izaten ziren barreñoak, eta haietan horrela xehatu eta paratu eta bildots hura trazu zuri batean bildua, puskak, denak han kontserbatzen zituzten usandu gabe, bertzeala sanferminetan bero egiten baitzuen; eta gainera orain baino aunitz beroago egiten zuen orduan sanferminetan. Eta han kontserbatu harekin, hormarekin, hori... hori zelakoz, hori... hark bazekien guk baino aunitz gehiago han Irunen neskato zegoenak, hau, orain noventa y tres años dituen horrek. Eta, gero, pues, hura egiten zen orduan, egiten zen lehenbiziko eltzetxe handi bat egiten zuten aza; aza zuriak egiten ziren sanferminetarako, altxatuak igual azak- eta baratzean, ahalik eta onenak. Eta, gero garbantzuak nahi zen adina, eta aza, aza eta garbantzuak; eta gero ondotik izaten zen xuri-beltzak edo... - xuri-beltzak izaten dira bildotsaren tripa kendu egiten direnak-, eta... oilaskoa, eta gero berriz bildots erreka, eta arrozkonletxe, izaten zen postrea, arrozkonletxe, baina arrozkonletxearekin izaten genuen, egunean batek egiten genuen arroz hari begiratu. Orduan izaten zen su... ez zen kozinarik, eta ez genuen horrela... baziren hornillo txiki batzuk, brasa bete, klaro, brasa hura, sutik, bajutik, eta gero, han haren gainean paratu egiten zituzten gauzak, baina, hura ez zen deus ere. Eta... paratzen zen laratza, izaten zen horrela zintzilik tximiniatik kate bat, eta gero handik laratza zintzilik paratzeko gantxo bat horrela, horrela, e! horrela; eta, handik paratzen zen pazia, esne pazia izaten zen esnea egostekoa-eta, eta pazia paratzen zen handik zintzilik horrela. Eta gero han esnea, barreñean, eta gero arrozarekin horrela paratzen zuten, eta hura guk, pues, hiru edo lau senide txikiak, han ibiltzen ginen arrantzan, zeini tokatuko zitzaion

ibiltzeko hura; hura ibili behar zen, arrozkonletxe hura, ez dakit zenbat denboraren bueltan, bueltan, bueltan, pixkan, pixka, pixka, pixka, bueltaka, bueltaka, bueltaka, bueltaka. Eta ja arrozkonletxe akabatzen zenean, egina, orduan, pues nire ahizpak eta amak, gero ni ahizparekin gelditu nintzen ama hil eta, baina hura dena ateratzen zuten fuentetara, arroz hura, eta pazi hura gelditzen zen hura ibiltzen zuenarentzat. Bueltaka esnea ibiltzen zuenarentzat pazia

3. Ogia gerra denboran

- **Erref:** LES-032/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Ogia, beno, ogia nik hamahiru urte nituenerako dena kendua zen; eta gerra, gerra zen, eta gerra denboran, pues egiten zen opila, eta gainera opila ere ez ziguten uzten nahi zen adina egitea, zertaz itxi zituzten errotak. Errotak itxi eta ezin genuen... ezin genuen egin irinik, eta bueno, ba, errotak itxi eta, pues, egin behar izaten zen gainera, egiten zuten orduan, registro erraten zuten; ekarri behar zen herrira urtean egiten genuen art(o)... ilarretik eta artotik eta denetarik ematen ziguten haiek hori... zenbat ekarri, eta honenbertze kilo herrira. Eta artorik gabe egiten zuten, ogia ematen zen herrian, baina erraten zuten egina zela ezkurrekin - ezkurra da haritzak botatzen duen potoko bat-, eta hura irina egin harekin eta harekin... Kanpotik ekartzen zuten, eraman eta ekarri atzera egiten zuten han nonbait ere irina eginda. Eta harekin egina, ez zen posible izaten hura jatea, bu! egiten genituen opilak, bueno, irina genuela.

4. Errotak gerra denboran

- **Erref:** LES-032/004
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:10:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Gero horretako nik anai bat banuen, zaharrena, edo... mekaniko hagitz ongi jakiten zuen, eta hark egin zigun...
- (Semea): Antonio.
- Berak egin omen zuen, gure anaia Anttoniok bai -eta Ameriketara hil zen, gero Ameriketara joan zen-, eta hark egin zigun, horrela... beheitian, kuadrán, behien gibleko aldean, toki bat sekretuan, e! zertaz harrapatzen bazioten orduan hura fusilatzen dute segituan nire anaia. Egin zuen horrela harriak paratu, bat azpian eta bertzea gaínean, eta gero hari egin zion zerbait ere... nik ez dakit nola, bi lagunek horrela... horrela ibilita, egiten genuen horrela ibilita, bi aldeetatik. Eta bazuen batek hartzekoa eta bertzeak hartzekoa, rueda bat egin zuen eta han paratu zituen bi harri, bai,

eta bi... aizu, bi harri, bat azpian eta bertzea (gainean) eta haren tartera botatzen genuen artoa izkina batetik. Eta hara bota eta hark harriak panpa! panpa! panpa! ibiltzen ziren guk ibiltzen genuenean bueltaka rueda hura, e! horrela katxa... egina zuen burdinarekin horrela... pedala bizikletan ere nola izaten da? pues, halakoa bi aldeetatik ibiltzeko. Eta harekin han egiten zuen, han egiten zuen, han egiten zuen eta, bueno, pues, han xehatzen zuen bastante. Eta gero izaten genuen eralkia, irina eralkitzekoa eta harekin seguru dena kendu eta harekin ahia egin eta hura jaten genuen. Eta bolada... bolada hartan ez genuen izaten... irinik ez genuen izan. Gero hemen Arantzan -Arantza da bertze herri bat hemendik bost kilometrotara edo ez dakit zer-, eta harat gauaz isilka joaten ginen, han norbaitek jotzen zuela eta joaten ziren nire anaiak-eta, eta... hura sumatu zuten eta hangoak eraman zituzten kartzelara eta errota itxi, hura egiten zuelakoz. Eta, pues, orduan...

- (Semea): "Artoa eho" da "xehatu".

- Bai, artoa eho, bada; artoa ehotzen zen, bai. Artoa han xehatzen zen, paratu eta... errota, errotak eho egiten zuen artoa, eta joka, joka, joka, joka egiten zuena, xehatu artoa. Eta, pues, hori, irin egiteko gure anaiak egiten zuen hura, baina egin zigun beheitian, zoko batean, eta egin... ez errateko inori gero, e! ez gero errateko! Ez zen libre. Eta, bueno, hura orduan harrapatzen dute eta kentzen diote lepoa segituan, hori... hura... errota hura harrapatzen badiote han egina, eta... pues, horrela. Eta gero behean azpiak atera, behiak jetzi, eta denak egiten genituen, baserrian.

Semea: Gero, arestian erran duzu joaten zinetela baserritik iturrira, baina ez duzu erran zer izena zuen baserriak eta zer izena zuen iturriak.

A, ba, "Iturri beltzetik" ekartzen genuen, iturria... "Iturri beltza" da maldan goiti joan eta iturri hagitz ona doa, baina... baina, bai, bastante urruti; eta handik baldearekin garraiatzen genuen.

- (Semea): Eta baserriak nola izena edo?

- "Buxkon borda", Buxkon bordatik, Buxkon bordatik Iturri beltzera joaten ginen. (...)

Gero berriz errotak ireki zituzten eta orduan fu! orduan kristoren bazka! Eta, opila nahi zen adina! Eta opilak nik egiten nituen beti, niri erraten zidaten nik egiten nituela hoberenak, baina, engainatu egiten ninduten, ni bidaltzen ninduten opilak egitera, klaro, beti atera kontent, onak nik egiten nituelakoz, egiten nituelako onak, e! nik hori... pentsa! eta hori erraten zen, baina... zenbat opil, aizu! Hainbertze lagunentzat egiten genituen opilak bazkaltzeko eta opilak afaltzeko, haiek erre... lurreko sua izaten genuen, eta lurreko suan su ederra egin eta gero han lehenbiziko honela izaten zen, forma honetakoa opil burdina erraten genion hari, opil burdina.

- (Semea): Talo-burdina.

- Opil-burdina erraten genion guk. Eta gero... hartan lehenbiziko buelta eman eta ura txirali suan. Eta gero izaten zen bertzea talomantenua, honela bertze bat gibelean, brasatik gibelera. Eta han denak pilin-pilin-pilin paratu eta gero bueltaka-bueltaka-bueltaka-buelta denak erre. Bu!

Holakoak egiten ziren. Eta gero hura eltzariarekin eta gazta barrenean paratu, eta, gazta eta opil hura hagitz ona izaten zen hura ere. Eta hura... horretarako behar izaten zen opilak erretzeko behar izaten genuen ordu bat eta gehiago, ordu eta erdi igual, zertaz han bueltaka-bueltaka egin behar zuten, baina onak, hagitz onak, e! egiten ziren opilak. Gero... izaten zen eltzaria izaten genuen, eta opila eta esnea, opila eta esnea, eta gazta eta... opila izaten genuen.

5. Zalain Zoko eta Alkaiaga

- **Erref:** LES-032/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:10:24. **Bukatu:** 00:12:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Zalain Zoko eta Alkaiaga zer dira, Bera edo Lesaka? Ze gatazka dago hor?

- Lesaka.
- Lesaka?
- Lesaka.
- Baina batzuek esaten dute Bera dela...
- Bueno, hala nahi duenak hala esango du, baina nik ez.
- Zu lesakarra.
- Ni lesakarra; Lesakan jaioa naiz eta nik beti... beti esango dut lesakarra. Orain, beste aunitz gauzatarako Berara gehiago edo... behartzen naizela? Bueno.
- Klaro, Bera hurbilago dago eta bizitza aunitz egiten duzue Beran!
- Hurbilago... hurbilago... hurbilago dagoelakoz eta komodidade gehiago badelakoz, hori. Baina, guk Aiuntamentua eta... juzgadua daukazgu Lesakan; orain, gainerakoa, elizaz... elizaz eta... dena, Bera, Bera da.
- Medikua.
- Medikua eta...
- Eta eskola eta...
- Medikua eta beterinarioa... eta eskola eta dena. Gainerakoa dena, baina!
- Eta... noiz hasi zen... hori, bueno, batzuk Bera... batzuk beratarrak izan nahi zutela, bertze batzuk lesakarrak hemen... Noiz hasi zen hori? Bueno... ge... bueno, gerra ez baina...
- Ummm... bada, bertsoak badira:

“Milla bederatzieun berrogeita bostian
okasio bat jarri digute atian
berentzat mesede eta
guretzat kaltian
bañan etzan artzaia
lo egon bitartian”.

(...) Horiek... paratu zituzten, orduan egin zuten... hemen bazen bertsolari bat Lesakan, horrela, ez... bertsotan aritzen zena horrela, baina bertsoak jartzen zituen, eta hark paratu zituen bertso horiek, bai.

6. Ubiria baserriak erregeek emandako pribilegioak zituen

- **Erref:** LES-032/006
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:12:23. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Eta bertze gerra batean, berriz, gerra bertze okasio batean, hemengo... hemengo zerean bezala bertzeak gerran ari zirelarik, hurrengoan bertzeekin joan ziren, bertze honen kontra Sancho el Fuerte edo Sancho el Sabio, ez dakit zein horietakoaren kontra. Eta, berriz irabazi zuen berak, hemengo lehenbizi irabazi zuena. Eta orduan... egin zituen Iruñetik honaxeago bada Miazubi, zubi bat omen da, izena duena hori. Ezkutua horretaz da ezkutu... Miazubin. Eta han egin zituen ito, zintzilik paratu zituen hemengo soldadu denak, errege horrek. Eta kendu zion, hamabostetik... zortzitik beharrean merkatua, hamabostetik paratu zion gero.

Bai, eta gero bazen, tarte horretan, ipurdi erretzaile gehiago izanen ziren orduan ere! Eta orduan bazen gizon aberatsa, bueno, bakarren bat... bakarren bat erregearekin ongi etortzen zena, e! Eta hari erran zion erregeak zer nahi zuen. Eta eskatu zion hark, defuntua, baserri hartako defuntua ekarri beharrean herrira, eta gero hemendik elizara nola hain zen... bila joatekoa, m? Eta orduan, Ubiri baserrian, nik neronek ikusi dut bi aldiz hemen, eta hiltzen bazen hangoa, Ubilgoa, hori zen Ubiri, eta hiltzen bazen joaten zen elizako apeza eta dena bertara defuntua eske eta ekartzen zuten elizara, eta elizan meza... eman, defuntuen meza eta gero kanposantura laguntzen zioten berriz. Hori zen pribilejio bat erregeak emana Ubiriko baserriari. Eta ez dakit ez zen hemen pasatu zelakoz erregea eta eman ziotelako gosaltzen, nik ez dakit zertaz, baina bazuen pribilejio hori.

7. Herrien fama-epistolak

- **Erref:** LES-032/007
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Lesakarrak tripazainak (...)

Igantziarrak inbidiosoak

Eta:

Aranztarrak harrikalariak (...)

Etxalarkoak fantasiosoak

Eta Berakoak orgullosoak

8. Inklusa

- **Erref:** LES-032/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:15:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Denbora batean umeak, izaten zuena soltera batek, delitu bat baitzen ba, e! Apezak nagusi zirenean delitu bat zen hori. Eta orduan egiten zuten: “Bueno, hau gorde behar dik nondik edo handik”. Orain Inklusa nola badiagun umea egin eta ekarri, hori gurasoak maite baldin badu, egiten du umea han utzi, lehenago hori, e! Eta umea atzera ekarri, bueno... alaba etxera ekarri. Eta gero denboraz, denboraz haurra adoptatu, alegia eta bertze batena izaki, eta da etxekoa. Hori zen egiten zutena Inklusatan. Aunitzek, bertze aunitzek utzi. Baina olata zen haien amentzako, eta haiekin amak sartzen ziren komentu batean bezala, eta hantxe egoten ziren arropa garbitu eta hango lanak eginez etxetik at... handik atera gabe, mojak baino oraindik okerrago. Hori zen Eulatas. (...)

Baina ez bazuten guraso horiek denbora horren barrenean erreklamatzeko haur hori, orduan mojek partitzen zituzten, alegiak eta ogi... ogia izaki. Partitzen zituzten mojek, horiek ere ez baitzituzten berek egina.

9. Haurtzaroko bizimodua baserrian

- **Erref:** LES-032/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:15:43. **Bukatu:** 00:17:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bueno, pues, ni... konparaziora nintzen hamaikagarren umea, eta, bueno, lehenbizikoak denak joaten ziren, eta ja kasik ez genituen ezagutzen ere lehenbizikoak gero koskortu ginenean, zertaz hazi ahala joaten baitziren, eta egia da, e! hori, joaten ziren denak eta txikienak beti gelditzen ziren gurasoekin eta bertzeak e... hazi ahala bidaltzen zituzten, orduan erraten zen “mantenu truk”, joaten ziren. Bidaltzen zituzten baserrietara, eta bidaltzen zituzten ahal den tokira, mantendu eta eramaten bazituzten kontent, e! Eta ni, bueno, ni hemen herrian jaioa naiz, baina gero joan nintzen zazpi urteetan baserrira, eta han baserrian, pues, bizitu ginen, pues, izaten genituen behiak, zerriak, eta... baserrian, pues, ez zen izaten etxean urik, eta ez zen komunik, orain erraten dute hango Indiakoak edo nola dira horiek! Horientzat erraten dute pobreak direla, baina gu... pobreak izanen ginen... gu baina pobreago ere omen ziren oraindik, e! ez dakit zenbat izanen ziren, baina guk ez genuen izaten baserrietan inon ere, e! hori auzo bat handia da hemengo hau dena, eta auzo horretan inon ere etxe batean bakarra egin zen komuna, eta hori han amerikano bat etorri zen, nik... nituenean hamabi urte edo horrela eta hark egin zuen horrela kanpora zulo bat egin eta gero txabola bat bezala egin barrenetik, eta han egin zuen komuna, eta handik egiten zuten landara egin behar zutena, eta oiloak ibiltzen ziren libre, haiek mantentzen ziren gainera, harekin, egia da hori, e! Etxe batean zen, Kuttunan etxea. Eta, jolin! haiek hori... amerikanoa etorri baitzen eta amerikanoak egin zuen komuna. Bertzetan baserrietan inon ez zen komunik, eta, pues... urik ere ez, eta ura ekartzen genuen... han baziren baserriak horrela, hurbil zutenak ura, baina gure baserritik zen, bastante urruti zen, eta, bai, nahiko urruti zen, bide koskorra bazen eta han garraiatzen genuen ura, hori... baldetan. Eta gainera hemen makil bat paratu bizkarrean -orain txinoak ibiltzen... ikusten ditut nik, erraten dut: “Horra, gu bezala bizi dituk horiek ere!”-, eta punta batean

balde bat eta bertzean bertze alde bat, eta gero ahal bazen bertzea eskutan ekartzen genuen, eta ur harekin, eta gero zerriak izaten genituen, zerriak bazkatzeko, behiak, eta... behiekin, pues, e... badakizu, gu neska koskorrak behi zaintzera joaten ginen, landetara, han kontu behiari. Gero arratsean ere gazterik hasi nintzen ni jezten, behiak jezten.

10. Politenari maiatza paratu

- **Erref:** LES-032/010
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bueno, maiatzean izaten ziren, badakizu neskak eta mutilak beti izan direla, eta izaten ziren neska bat denentzat ederra eta polita, edo gehienentzat, e! Eta orduan hari paratzen zioten maiatza. Eta zen txopoa, txopo arbola, txopo arbola... landare gazte bat, moztu eta paratzen zioten gora leihora paratua, izaten zuten txopo arbola hura. Eta: "Bai, holako neskari paratu omen ziotek maiatza", eta bua! Bertzeak inbidiaz, klaro. Joe! hori bereizi, mutil guztiek hori bereiztea!

Eta bertzeak berriz burlaz, gaizto samarra, idor samarra edo, eta hari berriz idorra... arbola... idorren bat. Eta hark berriz, goizean argitu baino lehen, meka! Paratu baldin badute gorde, klaro.

Baina, txopoa ederra baldin bazen, ikus dezaten denak.

11. Ama izatearekin batera, akabo gazte denbora

- **Erref:** LES-032/011
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:20:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, hamazazpi urtetarako banuen nobioa, eta hogeitazpi urte gabe esposatu nintzen, bai, eta... horrela; eta baina, izan nintzen, klaro, gelditu zitzaidan denbora txikia niri kanpoko bestetara joateko. Berako bestak, Etxalarko bestak eta Arantzako bestak izaten ziren eta haiek honat igual, Lesakara, etortzen ziren, hemengo bestetan hiru herri horietakoak etortzen ziren Lesakara, eta hemengoak berriz joaten ginen hango bestetan txandaka, denetara. Eta ni Berara izan nintzen urte batez, eta Etxalarrera bertze urte batez eta Arantzara bertze urte batez, hiru urtez izan nintzen bakarria bestetara; eta, oinez, Arantzara oinez.

Ja gero autobusa, bai, autobusa... Arantzara izaten zen autobus zahar-zahar bat trun-trun-trun-trun Arrondo, ibiltzen zena, eta hura betetzen zen eta gero gainerakoak joaten ginen gainean. Eta gu aunitzetan ere batere dirurik eta isil-isil abiatzen zenean joaten ginen gainera, eta gainera hemendik Arantzara joaten ginen honela betea. Eta arbolak izaten baitziren, fija zaitezte, abuztuan, Ama Birjina egunean izaten dira bestak

Arantzan, eta aitzinekoak hartzen zuen adar bat horrela, eta gero tirante-tirante zapa! uzten zuen eta gu giblekoari kristoren zaplatekoak ematen zizkiguten adarrek, eta egundaino ez zen inor erori eta deus ere, aizu, eta... horrela ibiltzen ginen.

Bertze... bertze urte batean Berara, eta Beran, bueno baziren hemen mutilak chulos (...) txuloak erraten genien orduan, bizikleta zutenak, eta haietatik harrapatzen bagenuen, jolin! eta harrapatzen genituen... (...) eta bizikletan joaten ginen baina barra, bizikletak nola izaten duen barra, eta han jarria honela [trabeska], eta gero mutila honela hemendik gidatzen ti-ti-ti-ti Berara, eta gero buelta ere bizikletan egiten genuen. Hori izaten zen gurea. Eta Etxalarrera bertze behin, oinez, Etxalarrera joan eta etorri oinez, bai; eta Arantzara autobus zahar hartan, eta Berara bizikleta horretan, ni hiru urtez... hiru urtetako bestak egin nituenak. Gero esposatu nintzen, hau izan nuen, eta gero handik urte bat gabea izan nuen bertzea, eta gero bertzea ez dakit zenbat denboraren buruan...

- (Semea): Hiru urte... bi urte eta erdi inguruan hirurak.

- Bi urte eta erdi honek zituenean hirugarrena banuen, eta gero, izorra hadi! Akabo! Akabo nire gazte denbora!

12. Inaxio saltzaileak ezkontza tratuak egin

- **Erref:** LES-032/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Mando batekin ibiltzen zen. Joaten zen goizean, taka-taka-taka-taka, zaldia izaten zuen, bi rueda...ko karroa bere toldoarekin eta, joaten zen astelehen goizean, etortzen zen larunbatean. Honarakoan ekartzen zituen sekulako arrautzak, sekulako... edo... zera, oilasko, eta... ostatua baitzuen berak, restaurantea zuen, eta astearen buruan ekartzen zuen. Orduan zer zuen, etxera ekartzen zituen zerak...

- Zer, ordaintzen zioten trukean, ez?

- Bai, trukean klaro. Koño, batzuk eta bi oilasko eta... bota pare bat nik, eta hark hau, eta horrela. Inaxio bastreru zen hori.

- Eta zer saltzen zuen, arropa bakarra edo...?

- Bai, bai.

- Zapatak eta...?

- Ez, arropa normalki, e! arropa. Maindire eta... bueno, horietakoak, bai.

- Eta, atso tratuan ibiltzen zela...

- Bai. Eta gero, badakizu, hainbertze lekutan eta hartarakoa gizona, e! Hartarakoa izanez gero pues: "Bai, hortxe bai. Berrogei urte ailegatu zaizkio, horra" -badakizu, hango solasa- "Berrogei urte eta soltera, horra. Eta hementxe, ikusten duzu alaba". Eta bertzeak, berriz:

- Koño, nik badut horrentzat toki ona. Bai, etxe ona gainera, etxe ona. Sei behi, eta ez dakit zer, eta...

- Bai, igual, e!

Eta, istantean elkarri:

- Nik eramanen haut hi ezagutzera.

Eta, bitartean, klaro, bitartean... bitartekoak horiek aparte, eta gero ezkontzak. Nik bi eta hiru badakizkit hark eginak.

13. Trukea

- **Erref:** LES-032/013
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Lehenago, lana egiten zenuen, ez dakit nik, dirua, ez zen dirurik, inork ez zuen. Eta, lana egiten zenuen, eta igual ekarriko zizun pues... bueno, gure oroimenean, oraindik sos batzuk baziren, baina gure aita edo aitonaetik ja kasik ez zen sosik eta orduan batek ekartzen zuen behar zela ilar pixka bat, bertzeak ez dakit zer, edo artoa edo, bat bertzearen trukadan, bat bertzearen laguntzarekin, auzolana orduan zen, edo e... bat bertzearen laguntza lana. Orain ja akabatu da hori. Anaitasun horiek eta denak akabatu dira, orain dena sosa da bakarra, eta lanik ez egin gainera, ahal bada.

14. Gaztainak kandelan hartu

- **Erref:** LES-032/014
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:23:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Gaztaineekin egiten zuten e... deitzen diote kandela jotzen zioten, kandela da subasta, euskaraz kandela erraten zaio, ez zenekien? Bai, kandelan, e! egiten zen atera gaztainak. Eta oroitzen naiz ni, mutiko gazte-gaztea, Herriko Etxean viva voz erraten den bezala egiten zuen guardamonte zahar batek, Ujenio... ez, nola zuen izena? Gregorio. Gregorio... Etxegarai, eta... hark, konparaziora Infernuko... ez Infernua ez, hemen, jeneralki izaten zen zerean, Atxulin bordako... "Atxulin bordako erreka ondo honetan badira ez dakit zenbat gaztainondo, honenbertze dirutan. Ea nork meioratzen duen!". Egiten voz alta, eta, batek tak! "Honenbertze!" Bertzeak "Harenbertze!". Eta: "Honelakok erran du honenbertze diru, ea nork meioratzen duen!". Eta azkenekoa, hiru aldiz egiten: "Erran dut behin. Erran dut bi aldiz. Erran dut hiru aldiz". Pam! jotzean gelditzen zuen harentzat, gaztaina hura.

15. Sariak azeriak eta azkonarrak harrapatzeagatik

- **Erref:** LES-032/015
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:23:53. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Azeriendako bai. Usaria... azeriendako ematen zuen, orain, ez dakit zenbat ematen zuen, baina zerbait ematen zuen. Eta gero... e... azkonarrendako ere bai; azkonarrak egiten du... artoetan-eta dañua. Azkonarra badakizu zer den? Tejón, erdaraz, hori da.

16. Harginek izokin gutxiago jan nahi zuten

- **Erref:** LES-032/016
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Elizara, etorri omen ziren eliza hau bigarren kolpez egina... bi kolpez egina omen da. Eta bigarren kolpe horretan izan behar zuen, Ameriketatik etorri omen zen bat, oso aberatsa izanen zen nonbait, eta, haren diruarekin egin zen bigarren altxaldi hori. Eta nahi zuen, bai, eta nahi zuen... gehiago nahi zuen egin. Lesakako elizatik beheitian bada ermita bat han beheitian, Salvatore izena duena. Ermita hartan nahi zuen egin, harrizko bidea dena, tapatua, harriz, kondizioarekin: hura hiltzean sartzeko aldarean, Aita Santua edo holako bat sartuko balute bezala. Eta hura elizak ez zion... ez zion ametitu nonbait, oraingoa baino finagoa edo zer baitziren ere (...). Eta orduan, bigarren aldi horretan, haren diruarekin altxatu zen horretan, ekarri zituzten harginak, klaro, hargin aunitz behar zituzten hor, eta arotzak ere, erremintak zorrozteko eta. Eta horko harria, eliza horretako harria atera izan behar du, Iturriko borda hor da baserri bat, han bada harrobi bat, eta harrobi hartan ateratako harria omen da hori. Gero pikatu eta klaro, pareta egin.

Eta, orduan omen zuten kondizioa paratua harginek, astean bi aldiz ez zieten izokina eman behar gehiago ez, bertzela ematen zieten egunero, nonbait ere izokina izaten zen hemen pilaka, eta kondizio hori omen zen. Eta, harrobian ari zirenak, badakizu haiek bi egunez ez, hiruz-lauz edo emanen baitzieten ba izokina (...). Eta katiluaren ipurdian, katilutik jaten izanen zuten, katiluaren ipurdian paratu omen zion harginak, batek edo bertzek edo paratuak, eta paratzen omen zuen: "Nola jan, hala lan, Iturkordako harrobian". (...)

Bai, gero hargin horiek, honat etorri eta nonbait ere ez zien konpontzen eze... kontratistarekin edo ze obra... nola egiten zuten, hori ez dakit, Estatua edo zer zen ez dakit. Eta orduan egin omen zuten bitarte, hemen ziren bitarte, ez dakit sei edo... zortzi hilabete edo urte bat edo zer, hor bada bertze etxe handi bat izena duena Borddenia, eta hura egin omen zuten bitartean, elegante aski etxea gainera.

17. Gerran gertatua

- **Erref:** LES-032/017
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:28:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Aita joan zen egun batean, hogeita hamaseian, hemezortzia horrela izanen zuen hilabeteak zerak (...), dieziocho julion izanen zen Alzamiento de no sé cuántos, badakizu nola zen, Francoren denbora zen. Eta orduan, nola baitzen gure aita errepublikanoa, beti... izaten dira batzuk baina bertzeak, nik ere izan dut pixka bat, baina ez soberan. Muturra behar ez den lekuan sartzen baita gehiegi, politikan. Politikak ez du deus ere, politika politikoentzat da, gu bezalakoentzat ez. Gure aitak joan behar izan zuen ihesi, bai, aita joan zen ihesi, eta klaro, guardia zibilak etorri ziren aitaren bila. Aita ez zuten harrapatu, eta egin zuten ama eraman. Eta amak zuen bularrean hazten ari zen hirugarren anaia, e! urte bat zuen, anaiak, eta eraman zuten preso, Iruñera. Eta aita ez zen etortzen. Eta tartean guardia zibilak etortzen ziren etxera, gu amatxirekin ginen orduan, amona horrekin, eta etortzen ziren eta sartzen ziren fusila... beren zer..., armari puntan sartzen zioten baioneta bat, izaten da hori... sartzen zaiona ezpata luze bat, baioneta izena duena, eta harekin etortzen ziren gauez igual, eta hartu zuten ohea, ohatzea, eta dra! eman zioten buelta, uste zuten aita ohatzearen azpian gordeta horrela zegoela. Eta hori egin zuten aldi... aldi sailaz guri egin ziguten hori. Eta gero, klaro, denak ez ziren aitaren aldekoak, maizterra zen aita, etxea ez zuen berea, eta egin gintuzten bidali etxetik, bai. Eta gelditu ginen derrepentean etxerik gabe, amarik gabe eta aitarik gabe. Amona, orain erran dizudan hori eta haren amona zaharra. Eta etxetik bidali gintuztenean, denak ez ziren gaiztoak ere, eta egin ziguten, batek karitatez eman zigun etxea.

18. Bataioa

- **Erref:** LES-032/018
- **Iraupena:** 0:05:29. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:34:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Pues... haurra, jaiotzen zen etxean bertan, em... emakumea klaro, partora ja apuroan jartzen zenean, deitzen zuten medikua, eta gero partera bat, eta partera izaten zen gure ama. Eta... haurra jaiotzen zen guztietara joaten zen gure ama. Lesakan erdia bada ere, izanen da aise, batere esajeratu gabe, gure ama sortu berrian medikuarekin han haurra jaiotzen. Eta... horiek denak. Eta... gero, hori pasatu eta... geroago bataiatu behar zen ondoko egunean luzeenaz, luzeenaz ondoko egunean. Eta... portzikaso ere, orduan horrela izaten zen, klaro, eta egit... egiten zen bada egun berean, baina gutxienez bi egun lehenago, baina... biha... ondoko egunengana. Zertaz, bertzela, ez bazen bataiatzen, eta hiltzen bazen haur hura Linbora joan behar... joaten zela errate... erraten zuten, e! Ez Purgatorioa eta ez Zerua, Linbora. Hori erraten zuten. Bueno, gero haurra jaio, eta biharamunean, lehenagotik izaten dira, aitatxi eta amatxi, e! Eta biharamunean elizara joaten zen, bertze emakume bat haurra hartu, aitatxi eta amatxi... berak joaten ziren elizara, bataiatzera. Eta... han bataioa, elizan sartu eta izkina batean eta segituan, horrela... kuartu... zera... bai, hor...i, katxarro hori burdinazko zerarekin atea egina.

Eta han holako... k... pa... palankana edo zer da? katxarro handi hori han. Ateratzen zen ura, eta... aitatzik eta amatxik hartzen zuten haurra. Nik hori, ikusi dudana zertaz ni monagillo egon nintzen. Eta hortik zenbat mila aldiz. Eta gero han, klaro, apezak hartzen zuen, noizbait ere hola egiten zuen, burua sartzen zion han... ba, zer horretan, ura zatia, gatza ematen zion, eta horrela hasten ziren negarrez, garrasika... normal. Eta horrela-horrela bastante denbora, ez dakit zenbat orazio edo egiten zien apezak, eta aitatzik eta amatxik ere egin behar zioten horrela zerbait ere gatzarekin edo horrela... bai. Asike, horregatik erraten da: “Koño! I ata... aitatzik kalkatua haiz” edo “Amatxi kalkatua haiz!” (...). Zen bataiatu, eta... elizan aldare aldera joan eta han errezatu, eta bataioa hori izaten zen. Baina aldian bat, e! haur bat, e! Egun batean suertatzen baziren bi, izanen zen eguerdia edo... goizean goiza edo horrela. Ahalik eta zerena, ondoko egunean egiteko, entenditzen? Zertaz zen bertzela Linbora joanen zela, eta bataiatuz gero ja, trankil egon entenditzen? Pues bataioa hori izaten zen. Gero, kanpora atera, eta... aitatzik eta amatxi, aberatsa zenak, (...) izaten zen erramutsa. Erramutsak erran nahi du dirua botatzea, ez arroza, e! Dirua. Baina dirua, denbora horretan handiena-handiena bi sos. Pezetarik eta ez, e! Eta bazuen, pezetak asko balio edo zuen! Bi sos... sos bat... ardia, marabedia ere bai, ss... e! Sosen erdia, este... ardia, eta ardiaren erdia marabedia, pentsa ezazu. Orduan... orduan pezeta bat zen... eta duroa botaz gero amerikanoa. Dena baten, haur... haur denak erramu tiratzen zuten eta... dute klaro, dirua izaten zuten lehenago paratu holako paper batean, orain kanbioak izaten diren bezala. Eta han deitzen zuten eta ra! botatzen zen, denak iraulka... han hura... hura hartzera. Eta gero, handik aitatzik eta amatxi, est... hori, este... aberatsa zenak, e! Eta... gehien... gehienak aberatsa gutxi. Pobrea zenak, aunitz haurrik edo esperoan eta: O! Gaur ez dute erramutsik!” Klaro. Eta gero etxera. Eta etxean... eginen zuten bazkariren bat edo horrela aitatzik eta amatxik. A, bueno, eta hau... izena, hori, inportantea, izena eman behar zen mutikoa baldin bazen aitatzirena, Periko baldin bazen Periko, Jose baldin bazen Jose. Eta amatxi baldin bazen, a... beno... hau... neska baldin bazen, amatxirena, Maria edo zera...

19. San Blas eguna

- **Erref:** LES-032/019
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:34:16. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- San Blas egunean egiten dira azukreak eta janaria pertsonentzako.
- Bedeinkatu.
- Bedeinkatu. Eta horiek, zintzurreko mina izaten duzun denboran, San Blasekin bedeinkatutako gauza hartu eta zintzurreko mina defentsa dago, kendu egiten du zintzurreko mina.
- Eta bedeinkatzeko zer, eramaten da elizara...
- Edo, pues eramaten duzu nahi baduzu pastela, nahi baduzu azuk... azukre-pastillak izaten dira, azukre koxkorra erraten diogu guk. Haietatik eramaten ditugu, eta eramaten ditugu pastelak, eta nahi baldin baduzu ogia ere, nahi baduzu zuretzat eta nahi baduzu animaliari emateko, ez dio

kalterik egiten. Eta... horrela, guk (sic) horrela ohituketu gara, horrela erakutsi digute, bai.

20. Xaldun kortin

- **Erref:** LES-032/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Lehenago nola dena dirurik gabeko asunto horrekin, izaten zen auzolanean batak bertzeari laguntzen zioten, m? Eta, artoa bere... zuriketak, artoa bildu eta ganbaran, eta zuritzen genituen artazuritzean. Neska-mutil eta bueno: "Goazen artazuritzen duten lekuetara, iji eta aja", badakizu, elkarrekin... eta gero izaten ohitura nonbait ere ematen zituzten gaztaina erreak, bertzeek gaztainak erretzen zituzten, eta sagardoa. Pitarra, etxean eginiko pitarra eta sa... gaztaina errea. Eta klaro, gaztaina erreak, jostetan aritzen ziren oraino zerean, badakizu, azertatzen bada eta ez bada azertatzen, eta:

- Koño, nik zuri...

Eta orduan izaten zen:

- Xaldun kortin!

Ea nork nahi zuen horiekin, gonbida bat da:

- Xaldun kortin!

Eta bertzeak, hartu z... nahi zionak:

- Bien artean! -erraten zuen.

Eta:

- Ni.

Batek (sic) bereizten zen, kuadrillatik:

- Nik.

- Zuk.

Bien artean, apustu bien artean. Eta, gero:

- Zenbaten arte?

Zenbat, eskutan gaztainak, edo magalean edo non zen.

- Zenbaten arte?

Eta, koño, pues igual:

- Zortzi.

Eta ikustean, lau ditu igual, eta zuk eman behar dizkidazu niri bertze lau.

21. Oilarrak gauez kukurruku egiten badu...

- **Erref:** LES-032/021
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:36:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, gu... ni suertatu naiz gure amarekin, oilarra kukurruku gauez eta ama

jaiki eta gatza suari botatzen.
- Zer ba?
- Jaikita ez, ohatzera joan gabea. “Sorginak dituk etxean, sorginak dituk”
eta... gatza atzapar bat, gatza sura botatzen ikusi dut ama.

22. Kukua aditzean...

- **Erref:** LES-032/022
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:36:34. **Bukatu:** 00:36:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Kukua aditzean begiratu sakelan ea baduzun sosik.
- Baina lehenbiziko aldian aditzen duzunean, ez?
- Bai, lehenbiziko aldian. Eta gainera lehenbiziko... “Kukuak lehenbiziko kantatzen dik -gure amaxik- Erromako zubian. Eta gero hona (...) etortzen denerako aditzen baduk kukua, eta baldin baduk sosen bat edo zerbait sakelan, urte osoan ez duk diru falta izanen, baina ez baduk, gabe egonen haiz”.

23. Belarriak gorritzean...

- **Erref:** LES-032/023
- **Iraupena:** 0:00:09. **Hasi:** 00:36:57. **Bukatu:** 00:37:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Belarriak gorritu: “Ño, norbait ere gure kontra ari duk. Ño!”
- Eta ez zen ezkerrekoa kontra eta eskuinekoa...
- Eskuinekoa alde.
- Bai.
- Ezkerrekoa kontra, eskuinekoa alde.

24. Azazkaletan mantxa zuriak agertzea

- **Erref:** LES-032/024
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:37:06. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bai, hori horietan [azazkaletan] izaten dira... horrela zera batzuk.
- Mantxa zuri batzuk...
- Mantxa zuri batzuk. Eta klaro ikusten: “Gezurra azkarki erran duk hik!”.

- Eta bertze batzuk... bertze batzuk berriz:
- Andregaia baduk hik!
- Zer ba?
Eta:
- Horra, begira iezaioak azkazala non ke, andregaia baduk hik.

25. Karrika bueltan Tantirumairu jo sanferminak heldu direla errateko

- **Erref:** LES-032/025
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Karrika buelta eta, badakizu, siete de julio izaten dira sanferminak, eta, txistulariak, hau hagitz aspalditik heldu dena, nik nire denboran jo dut. Hori da sanfermina heldu delako seinale bat, eta seinale hori da Pascua de Pentecostés, bigarren Pazko eguna. Egun hartan hasten da, m... ba... urtero ez da... este... tokatzen igual. Batzuetan igual maion ere ezagutu dut, doze de maion ere, pentsa ezazu, goiz izanen ziren inauteak, bai, eta gero, aproxima(da)mente... último mayo, primeros de junio. Hori, hori da este... seinale bat jendeak errateko sanferminak heldu direla. Bertze tokietan Hondarribian eta igandero ematen du, neguan eta denean, baina, hori Lesakan, karrika buelta hori... hori izan da, Pentekostes igandetik, igandero edo jaia, Corpus eguna artean, tokatzen zenean San Fermin bezpera bitartean, hori, gero... akabo. Eta, karrika buelta horretan, San Juan igandea ailegatzen zenean, orduan bazen pieza bat sentzilloa, baina hori jo behar zen: Tantirumairu. Eta hol... eta holako da igual... e... este... San Juan eguna jaia zenetik edo... bol... zoaz noiztik Tantirumairu hori. Eta... orduan Tantirumairu hori igandean jo behar da. Bertzea zortzikoa, este... jotzen zen: lo, lo, le, ri, li...

Horrela, tiempo zorziko, bertze igandeetan, baina i... San Juan igandea, veinticuatro de... junio, tokatzen bazen igandea ventiuno edo ventidós edo ventitrés, horrela egiten zen. Baina, tokatzen bazen el diezinueve edo horrela ez, ondoko igandea. Izan dadila San Pedro eguna, jaia izaten zen, San Pedro aurreko aldeko igandea edo... San Juana...ko igandea. Hor, tarte hartan, Tantirumairu hor zen. Eta pieza zen: "La, ra, la, la, la...".

Hara, pieza sentzilloa, hura ez dakit noizko urtetik heldu dela hori jo behar zen, bertzetan zortzikoa San Fermin bitartean.

26. Lesakako Banda

- **Erref:** LES-032/026
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:40:33. **Bukatu:** 00:41:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Bandan zenbat zineten? Zenbat lagun?
- Gu, aproximadamente, hogeita bost edo horrela.
- Denak gizonak? Denak mutikoak?
- Bu! Mutikoak? Orduan, horretan suerte izan... eta asike ere, ez tartean suertatu neska bat, beti ilusioa gehiago egiten da, fandan. Bueno, bue... Hasta el año setenta, setentaionon lehendik esan nizuen, horrela Kasinoko alaba, bai, aitzak erran zidan erokeriatan: "Nire alabari erakutsi behar diok txistua".
Eta, koño! orduan ez zen ikusten emakume bat, neskatxa bat horrela bandan, ez zen egin... ez zen ikusten. "Hau erokeriatan ari duk!" Eta: "Baitez, baitez!" Eta: "Bidal ezak bihar bertan".

27. Amaiurren gertatua

- **Erref:** LES-032/027
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 00:41:21. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hamazazpi urte nituen orduan, eta... hango parrokoak, este... erran zion hemengo parrokoari entenditu zela bazirela omen txistulari bastante onak, eta joan nintzen, eta guri erran zigun eta gu pozik, bai. Orduan ere... zeren dira, Ama Birjinetan bestak, bai, bai, bion orduan ja... Etxalar geroztik hasi ginen. Hamazazpi urtetik aitzinera Etxalarrera eta... zera, Igantzi, Igantzi ere bai. Eta, joan ginen, hiru lagun: bi anaiak eta Martzel, eta bua... (eta) hagitz ongi. Arratsaldean han pasatu dudak ikararik handiena pasatu dut, lehenbiziko egunean, eta gero barrez eman zigun, klaro, eman zigun, bai. Pues... txistu hutsa, e! dena jota. Dena jota. Eta, klaro, txistua jotzen eta hor ari ginen, eta maiordomoak erraten zuen... hango ba... zera batek ekartzen zuen tragoa, ardoa edo... magra puska batzuk eta, hori jan, eta nahi badugu zerbeza nahi duenak. Eta, klaro, orduan, orduan ez zen orain bezala aurreratua izaten. Ordua, konparazio baterako, bueno, orain aldatuko dute aitzinera, e! Bueno, bueno esanen dugu, egun konparazio baterako... este... ordu bata da, orduan izaten zen hamabiak, hamabiak klaro, eta orduan, orain hamarretan bezala zortziak aldean iluntzen zuen. Eta, jotzen ari ginen, fandangoa jotzen bezala, eta, lehenagotik, neskatxak aproximadamente zuen adinekoak, zuek bezain guapak ez, e! Eta, zera erdi mokosa batzuk etorri eta txaketak, jertseak eta paratu zuten kioskoa, beno... baranda izaten, haien gainean, dena, zabaldu gabe, (...) halako batean ja, iluntzeko bezala, jotzen ginen eta, badakizu plaza izaten da beti herrixka horietan elizaren ondoan, eta, horrela ari ginen, horretan hasten da, kanpana: Tun! Tun! Tun! Tun! Tun! Eta lehenago akostunbratuak hemen etxeak erretzen zirenean, bai... horrela seinale ematen zuten kanpaiekin hemen, Lesakan behinik behin, eta nik nonbait ez nuen bertzerik pentsatu, este... hura zera zela, erre ezkila erraten diogu. Eta pieza hori akabatu baino lehenago, neska guztiek tra! beren zerak hartu, txaketak, eta martxa. Eta gu gelditu, esan nuen:
- Ui! Heldu da maiordomoa, heldu da.
Eta, ni... ni beti hiruetarik atrebituena izan naiz, e! Hori bai. Eta:
- Adiskidea, zer pasatzen da gaur, erre ezkila?

- Ez, ez, on... edo, tto, tto, tto! Edo kostunbrea da, ilun ezkila jotzen dutenean neskaxa guztiek etxera joan behar dute.

Mekauen la puñeta! Bueno, bueno! Eta, bai, eta pieza ez genuen, akabatzen ez zigun utziko eta gero segitu genuen, gero bai, joan ziren joan... uste eta e... etxeren bat erretzen edo ari zen.

Gu kontent, bueno kontentuago, behinik behin akabatu genuen, eta:

- Bueno, orain, etorri -maiordomoa- trago egitera.

Joan eta... gero, este... ostatu bat edo ez dakit zer, han ospedatu ginen hirurak. Han lo egin, jan eta edan eta dena han egiten genuen. Eta, afaldu genuenean, este... etortzen da maiordomoa eta... erraten digu:

- Orain jo behar duzue? Este... horrela... agarratua.

Agarratua? Badakizue zer zen? Ez dut batere gezurrik erraten, parrokoaren etxea, eta bazen komedore han... komedore edo ez dakit zer zen, hau adinako hiru badira ere, etxe handia, eta han, han, neska batzuk han eta mutil batzuk maiordomo aitzinean, eta:

- Orain badakizu no... este... jo... jotzen, txistuarekin jo daiteke agarrau?

Eta nik musika...kin, tronpetarekin zera, tonua edo hartu edo, eta jotzen nuena eta... jotzen nituen bals batzuk: "lo, le, ri, le...". Bueno, horrela, txotis, pasodobleak, mazurkak... mekauen! Parrokoaren etxea zen!

Lagunek esaten didate:

- Aizak, hau ez al duk bekatu?

Zer, kanpoan beka... e... ze... eta orain horrela? Eta bueno, segitu genuen.

Eta erran zigun orduan maiordomoak:

- Zuek bertze instrumenturik duzue?

Eta:

- Bai, nik tronpeta, nik saxofoia eta honek klarinetea.

- (...) Biharamunean lo, zuek trankil egon, jana ere bai utziko, abisatuko dugu.

Eta... hango maiordomoa bertze lagun batekin motozikletan etorri ziren Lesakara, guri deus ere erran gabe. Etorri ziren Lesakara, gure etxean agertu eta gure ama, Barbara erraten dugun bezala, atea jo eta za... goizeko zazpiak edo horrela omen ziren. Eta orduan, goiz argitzen, etorri baitziren eta, atea jo eta:

- Bai? Hementxe, Santiago eta Jose Maria Irigoien hemen bizi dira?

Eta:

- Bai, zer ba, zer ba? hark, jakitun ari ginela hau, apuratua.

- Bai, este, kornetilla, eta, -orduan kornetina errat zen... erraten zen- eta saxofoia emateko.

- A! hori (...) ez duk deus ere!

Instrumentuak ekarri, berek hartu beren maletan, bertzearen etxera joan hari... zeri... klarinetea, hirurak hartu, etxera joan eta, beti oroitzen naiz zortzietarako, ez dakit zortziak-bederatziak edo zer ziren, eta nire anaia nerbiosoa:

- Koño! hemen janek berandu jotzen ditek, ez dakit zer...

Eta:

- Ba! etorriko dituk, bai, etorriko dituk. Ez zaitezela apuratu.

Eta bertan, alajaina, ez dakit erleburun edo zer ginen, hankatik tiratzen ginen eta ikusten ditugu instrumentuak han. Harritua! Eta baietz. Igual erran ziguten, erran izan bazuten ez ekartzeko, eta hau eta hau pentsatu dut, eta:

- Ederki egin duzue, alajaina, bai, orain hagitz ongi etorriko da parrokoaren etxean, este... agarrau jotzeko. Kanpoan joko dugu txistuarekin jota.

Eta horiek, edo... Amaiurren bai.

28. Jainkoak eta San Pedrok ura eskatu

- **Erref:** LES-032/028
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:48:21. **Bukatu:** 00:49:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Bazen, emakume bat, ari zen esne ontzi bat garbitzen iturri batean. Eta, erran zion:

- Emanen al didazu ur pixka bat?

Eta... eta bertzeak esne ontzia batere garbitu gabea, rak! Eta bere taparekin eta eman zion. Eta bertzeak erantzun (...):

- Eskerrak. Senar on [eman] diezazula -erran zion Jaungoikoak.

Eta, badoaz. Handik noizbait ere, handik ordu batean, berriz ere kasu bera baina bertze nonbait, eta eskatzen du ura. Eta bertzeak, esne ontziarekin zen han zuzen hura ere. Eta garbi-garbi-garbi egin eta tak, eman zion ura. Eta eman zizkion eta eskerrak, senar txarra edukiko zuela erran zion. Eta gero San Pedrok, Pedrok, erran zion:

- Zu, Jesus, baina, baina... baina nola izan daiteke? Lehenago, ontzi zikin batean ura eman eta "senarra on [eman] diezazula" erran diozu, eman dizkiozu eskerrak, eta orain, ontzi zikinarekin "senar txarra [eman] diezazula".

Eta:

- Bai, bai, horrek lan franko izanen dik senar onarekin ere! Bertzeak bizia aterako dik txarrarekin!

29. Beleak zertaz ez duen udan urik edaten

- **Erref:** LES-032/029
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:49:33. **Bukatu:** 00:50:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori bai:

- Karrankaz ari dira, agortea heldu duk.

Eta:

- Zer ba?

Eta:

- Badakik zer egin zuen beleak? -nire amatxik, mutikoak ginelarik kontatzen.

Eta:

- Zer egin zuen?

Eta:

- Beleak badik kastigua, Jaungoikoak emana.

Eta:

- Bai?

Eta:

- Bai. Jaungoikoa ari huen ura edaten, eta beleak gainetik kaka egin zian.

Eta... geroztik kastigua dik, beleak ez dik urik edaten ahal, ez dakit nola eta orain kastiguz zegok, hara, karrankaz nola dagoen, egarri zegok.
Ink.: Uztailean eta abuztuan ezin du edan, ez?
Bai, bai.

30. Ezin gaztelaniaz ulertu

- **Erref:** LES-032/030
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:50:04. **Bukatu:** 00:51:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Olan, e! Gerra izan zen, ze gerra baitzen ere. Eta, horra etorri omen ziren General Morriones erraten zigun guri, ez dakit, Olara. Eta, bere soldaduak edo, zerbait ziren horrela, gero Ola bazen baserri bat, Ola, eta gero baserria Ola izena zuena, eta han egiten zuten ostatu moduan edo. Eta, kontatzen zuen nola han, egon izanen ziren, gerrako Morriones jeneral horrekin batean horiek, han bau... jan eta han egiten izan zuten, eta, noizbait ere joan behar zuten ba, m? eta erraten dit:

- Bueno -kastellanoak izanen ziren, klaro- Bueno, ya nos marchamos.

Eta hango mahaia edo... neskatoa edo, han zerbitzatzen edo aritzen zirenak edo, eta aditzen isil-isilik eta erran zioten etxeoandreak:

- Aizu, ya nos marchamos erran du, zer erran nahi ote zuen?

Eta:

- Bai, martxoan etorriko direla erran din, martxoan etorriko direla.

31. Gaztelaniaz gaizki erran Patziku locok

- **Erref:** LES-032/031
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:51:01. **Bukatu:** 00:51:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

Hori, Donezteben pasatu zena da hori. "En casa de la Señora Joaquina" - zera jo zuten, bandoa edo tutua edo taula edo... taula edo, "En casa de la Señora Joaquina, hay patata de siembra, no sé por cuánto el kilo. Y el que quiera tomar por saco que vaya a la Alhóndiga".

Eta, hark erran nahi zuen "el que quiera comprar por sacos".

32. Erramu eguna

- **Erref:** LES-032/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:51:24. **Bukatu:** 00:52:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Pues e... hori izaten da igandea, Erramu eguna, eta egiten dugu a... eraman erramua, zenbat nahi duzun, pixka bat, bi adar edo, eta egiten da prozesioa, eta bedeinkatu, eta gero tximista eta trumoiaren denboran defentsarako izaten da Erramu eguna. Erramua, tormenta heldu den denboran, pues, egiten dira gurutzean paratu suan eta garrik gabe erre; hura da... tormentaren defentsa. Pues, hori erakutsiketu digute. Gero, bertzea izaten dugu San Juan eguna; loreak bedeinkatzen ditugu. Eta... bezperan egiten ditugu erre, San Juan bezperan egiten dira erre, zaharrak.

- Loreak?

- Zaharrak. Loreak, konparazio batera, gaur bedeinkatu behar dituzu, eta egiten dira bezperan, egiten dugu sua, eta egiten gara saltoka ibili su hartan. Eta loreak bakarrik ez, gero kartoiak edo edozein sua egin behar dena paperarekin edo, su handia egiten da. Eta su handia egiten den denboran, saltoka ibili jendea eta yasta. Eta gero biharamunean loreak bedeinkatu...

33. Kandelero

- **Erref:** LES-032/033
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:52:39. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- Kandelero bai, kandelak bedeinkatzen ditugu. Elizara joan eta kandelak pizten dira, eta bedeinkatzen ditugu kandelak, egiten dute prozesioa elizaren bueltan, eta denak ere ibiltzen ditugu. Gero etxera etortzen gara, e igual da arratsaldean izanda ere, pues kandelarekin bedeinkatu, animaliak eta pertsonak, denak bedeinkatzen gara. Guhauren eskaerak egin eta ile pixka bat erre...

- Animaliei belarrian.

- Belarrian, ezkerreko belarrian pixka bat erre. Eta hara! gure pasadizoa hori da.

- Eta persona, ilea bakarra.

- Bai, guk ilea horrela hartu...

- Ezkerreko aldekoa ere bai? edo...

- Bueno, nahi den... edo... hobekiena nola heldu zaizun, pues ez du horrek inportantziarik izanen. Gero, pues, espaldan botatzen dira hiru kandela sorta; lehenbiziko botatzen eduki kandela piztua, eta gero banaka-banaka hiru xorta bota.

34. San Anton

- **Erref:** LES-032/034
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:55:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

Transkripzioa

- San Anton egunean, pues, deus ere. Bedeinkatzen dituzu animalien gauzak, eta nola izan zuen San Juanek zakurra, pues, zakurrentzat ogia, katuentzat ere bai... Animalien eguna da San Anton eguna. Eta Erramu eguna da denentzako, eta tormentaren defentsarako.
- Eta... San Anton egunean aziendak ezin dira lotu.
- Ez. Hori adituketu duzu?
- Bai.
- A! Pues ez, ez. Bo, orain ez dugu lanik, e!
- (Senarra): Zu! horrek ere badu bere istorioa. Kontatuko dizut nik (...). San Anton egunean erran duzu aziendak ez dela libre...
- Lotzea.
- Lo... lotzea, ez. Eta, San Anton egunarekin mandazain bat joaki omen zen bidexka baten barrena, eta, egin omen zitzaion mandoa amildu, eta gelditu omen zen elorri baten kontra, mandoa, eta, mandazainak ikusi zuenean hura elorriaren kontra gelditua, erraten omen du: "Ai! ez eskerrak San Antoniori ez, eskerrak elorriari, bertzela beheitiko errekan zuan!". Eta mandoa hasten omen da mugitzen eta krask! hautsi elorria eta anda dia! beheitiko erreka mandoa. San Anton egunarekin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com